



## ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: KANTUA 2019ko MARTXOAREN 26a

2019ko MARTXOAREN 26an Musikenek Ate Irekien jardunaldia antolatuko du **Kantu** espezialitatean.

Maite Arruabarrena eta Ana María Sánchez espezialitate irakasleek parte hartuko dute Itziar Barredo eta Javier Pérez de Azpeitia erreperitorio pianistekin eta Musikeneko kantu ikasleekin batera.

### Nori zuzendua?

Musikenen goi-mailako ikasketak egiteko interesa duten kantu ikasleei. Beren familiakoak, lagunak edo irakasleak ere etor daitezke.

Bi motatako ikasleak egongo dira:

Aktiboak: Musikenen goi-mailako ikasketak egin nahi dituzten harpa ikasleak.

Entzuleak: jardunaldi hauetara etortzeko interesa duen edonor.

Jardunaldira etorri ahal izateko ezinbestekoa da **erreserba aurrez egitea**, gure webgunean eskura duzun **izen-emate orriaren** bitartez.

### Jardunaldiaren helburua

- Ikastegiko ikasleekin Musikenen egiten den lana erakustea.
- Musikeneko ikasle izan nahi dutenei eta bertaraten diren irakasleei goi-mailarako sarrera probei buruz, bertan eskatzen den mailari buruz eta erreperitorio egokiari buruz informazioa ematea.
- Proba hori gainditzeko ikaslearen maila baloratzea, lantzeko proposatzen diren piezak entzunez.
- Proba gaindituz gero ikasleek izango duten ikasketa planari buruzko informazioa ematea

### Lan-egitasmoa

9.00-9.45: Jardunaldiaren aurkezpena, kantu espezialitatearen ikasketa planari, berau osatzen duten irakasgaiei eta irakasleei buruzko informazioa, sarrera proben inguruko azalpenak. Eraikinari bisita gidatua.

Musikeneko irakasleek eta kantu erreperitoristek ikasle aktiboekin lan saioa:

10.00-12.00: Maite Arruabarrena eta Javier Pérez de Azpeitia

Musikeneko irakasleek eta erreperitoristek bertako ikasleekin lan saioa:

12.00-13.30: Maite Arruabarrena eta Javier Pérez de Azpeitia

13.30-14.00: Javier Pérez de Azpeitia Departamentu buruarekin bilera

Atsedena

Musikeneko irakasleek eta kantu erreperitoristek ikasle aktiboekin lan saioa:

15.30-17.30. Ana María Sánchez eta Itziar Barredo.

Musikeneko irakasleek eta kantu erreperitoristek bertako ikasleekin lan saioa:

17.30-19.30. Ana María Sánchez eta Itziar Barredo.

Ikasle aktiboek arren eskatzen zaie izen-ematea egiterakoan proban joko dituzten obrak zehaztea, eta ate irekien egunean bertan partituren kopia bat ematea.

2019ko ekainean sarrera proba egingo duten ikasleak entzungo dira lehendabizi.





**Non:**

**MUSIKENE** Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia

Europa plaza, 2.

20018 Donostia-San Sebastián

Kontakturako telefonoa: 00 34 943.023.750

E-maila: [info@musikene.net](mailto:info@musikene.net)

Mapan ikusi nahi baduzu: <https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Informazio gehiago behar baduzu harremanetan jarri Teklatu instrumentuak eta Kantua Departamentu Buruarekin: Javier Pérez de Azpeitia [jperez@musikene.eus](mailto:jperez@musikene.eus)